
Autoebaluazioa: 3. Gaia

Ariketa 1. Demagun seinaleztapen 6 bandera ditugula, bi gorri, bi berde eta bi urdin, hain zuzen ere. Zenbat seinale desberdin egin daitezke bat edo bi banderekin, aldi berean?

Ariketa 2. Zenbat futboleko kiniela desberdin egin daitezke?

Ariketa 3. 52 pertsonak, 60 pertsona onar ditzakeen autobus bat (gidaria barne) alokatzen dute. Zenbat modu desberdinetan koka daitezke 52 pertsona, gidaria, horietako 52 pertsonetariko bat baldin bada?

Ariketa 4. Zenbat bi zifra desberdinetako zenbaki desberdin eraiki daitezke 5,7 eta 9 digituak erabiliz?

Ariketa 5. Gaztelaniako alfabetoarekin (25 hizki), zenbat 6 hizki desberdinetako hitz (zentzua dutenak edo zentzu gabekoak) lor daitezke? Eta honetariko, zenbat hasten dira bokal bategatik?

Ariketa 6. 1-etik 9 bitarteko zifreekin (biak barne), zenbat 3 zifretako zenbaki desberdin osa daitezke?

Ariketa 7. 3 txanponen jaurtiketan, zenbat emaitza posible ditugu?

Ariketa 8. Zenbat 5 zifra desberdinetako zenbaki osa daitezke 1,2,3,4 eta 5 digituekin?

Ariketa 9. Zenbat 4 zifra desberdinetako zenbaki osa daitezke 0,1,2 eta 3 digituekin?

Ariketa 10. Zenbat modu desberdinetan jesar daitezke 7 pertsona banku batetan?

Ariketa 11. Koadernaketa erreferentzia izanik, zenbat modu desberdinetan koka daitezke 30 libururik, honetariko 10 larruan egonik, 9 oihalean, 6 kartoian eta 5 paper-azalez?

Ariketa 12. Zenbat zenbaki 6 zifratakoak osa daitezke, baldin eta horietan beti badago bat 1, bi 2 eta hiru 3?

Ariketa 13. Zenbat biderketa desberdin egin daitezke 3 zenbakitik 17 zenbaki bitartera dauden zenbaki arruntekin, horiek barne, 4-naka biderkatuz eta bat ere errepika gabe?



Ariketa 14. *Zenbat apustu posible egin daitezke Primitiba loterian, laukian agertzen diren 49 zenbakien artean 6 zenbaki markatuz?*

Ariketa 15. *Lan iragarki bati erantzunez, administratibo hiru lanpostu betetzeko 12 pertsona aurkezten dira. Zenbat pertsonazko multzo desberdin aukera daitezke?*

Ariketa 16. *Zenbat multzo hiru hizkiekin osa daitezke a, b, c, d, e, f, g hizkiekin, multzo bakoitzean berdina den hizki bat, baten baino gehiagotan ager badaiteke?*